

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

ARTZINIEGAKO UDALA

Behin betiko onestea zerbitzuak emateagatik eta jarduerak egiteagatik ordaindu beharreko prezio publikoak arautzen dituen ordenantzaren eranskinaren aldaketa

Udal honek, 2022ko otsailaren 10ean egindako ohiko bilkuran, erabaki zuen zerbitzuak emateagatik eta jarduerak egiteagatik ordaindu beharreko prezio publikoak arautzen dituen ordenantzaren eranskina aldatzea.

Iragarkia 2022ko martxoaren 16ko ALHAOn (32. zenbakia) argitaratutako iragarkiaren bidez jendaurrean egon den aldian inolako erreklamaziorik aurkeztu ez denez gero, behin betiko onetsirik geratzen da, jarraian bezala idatzita:

ZERBITZUAK EMATEAGATIK ETA JARDUERAK EGITEAGATIK ORDAINDU BEHARREKO PREZIO PUBLIKOAK ARAUTZEN DITUEN ORDENANTZA

1. artikulua

Udal honek, bat etorrit Arabako Lurralde Historikoko toki ogasunak arautzen dituen foru arauan ezarritakoarekin, eranskinean ageri diren zerbitzu eta jardueren prezio publikoak ezarri eta eskatzen ditu, ordenantza honetan ezarritako eran, zeinaren zati baitira.

2. artikulua

Ordenantza hau Artziniegako udalerrri osoan aplikatzen da.

3. artikulua

Ordenantza honetan araututako prezio publikoak, horiek ordaindu beharra sortzen duten zerbitzuen edo jardueren onuradunek ordaindu beharko dituzte.

4. artikulua

Ordenantza honetan araututako prezio publikoen tarifak eranskinean daude jasota.

5. artikulua

Kopuru horiek, eskatutako edo egindako zerbitzu edo jarduera bakoitzeko ordaindu beharko dira, eta ezingo dira murriztu epigrafeetan azaltzen diren zenbatekoak.

6. artikulua

Ordenantza honetako zerbitzu edo udal jarduerak jaso ahal izateko, aurrez horien eskaera egin beharko zaio Artziniegako Udalari. Zerbitzu edo jarduera horiek betiere ordenantza honetako prezio publikoak ordaintzeko baldintzapean emandakotzat joko dira eta, luzatu ondoren, prezio publikoa ez ordaintzeak berez eta besterik gabe ekarriko du zerbitzua ez ematea edo jarduera ez egitea.

7. artikulua

Ordenantza honetako prezio publikoak ordaindu beharra zerbitzua ematen den edo jarduera hasten den unean sortzen da.

Hala ere, dagoeneko eman eta luzatutako zerbitzuak edo jarduerak badira, ordaindu beharra sortzen da dagozkien tarifetan adierazten diren aldietako bakoitzaren lehenengo egunean.

8. artikulua

Udalaren kutxetan zuzenean diru sarrera eginez ordainduko da prezio publikoa, zerbitzua eman edo jarduera egin baino lehen, eta adierazitako gutxieneko zenbatekoaz.

9. artikulua

Dagokion zenbatekoa itzuliko da jarduera egiten ez bada eta ez egitearen arrazoiak ezin bazaizkio egotzi prezio publikoa ordaintzeko obligazioa duenari.

10. artikulua

Prezio publiko horiek ez ordaintzearen zorrak premiamendu bidez eskatu ahal izango dira.

Azken xedapena

Ordenantza hau, bere eranskinarekin batera, behin betiko onetsi zen eranskinetan agertzen den egunean. Indarrean jarriko da ALHAOn argitaratzean eta indarrean jarraituko du harik eta aldatzea edo indargabetzea erabakitzen den arte.

**ERANSKINA
TARIFAK****1. EPIGRAFEA: FOTOKOPIAGAILUA ERABILTZEA.**

A-4 paperezko dokumentuen fotokopiagatik	0,10 euro folioko
A-3 dokumentuen fotokopiagatik	0,15 euro folioko

2. EPIGRAFEA: FAXA ERABILTZEA.

Faxak bidaltzea	1,50 euro folioko
-----------------	-------------------

3. EPIGRAFEA: MUSEO ETNOGRAFIKORAKO SARRERA.

- Sarrera orokorra: 4 euro.
- 15 pertsona edo gehiagoko taldeak, erretiratuak, langabeak, minusbaliotasuna dunak, gazte-txartela, familia ugarien txartela, irakasleak: 3 euro.

- 6 eta 12 urte bitartekoak: 2 euro.
- 6 urtetik beherakoak: salbuetsita.

Sarrera doan den eguna:

- Museoen Nazioarteko Eguna, maiatzaren 18a.

Artziniega, 2022ko maiatzaren 4a

Alkatea
JOSEBA VIVANCO RETES